

PASAIA / Irakurzaletasuna bultzatzea dute helburu

‘Irakurri’ kanpaina martxan jarriko dute datorren astean liburutegian

Goiatz Labandibar

Irakurzaletasuna bultzatzeko astea izango da datorrena Udal liburutegian. Irakurri kanpaina jarriko dute martxan.

Kanpainak hiru ekimen bultzako ditu. Batetik, 12 eta 16 urte arteko gaztetxoei zuzendutako argazki lehiaketa izango da. Lanetan ezinbestekoa izango da libururen bat ateratzea. Sariak ordenagailu eramangarri bat, bi Ipod eta hiru argazki kamera digital izango dira. Azaroaren 1etik 15era bidali ahal izango dira argazkiak.

Bestetik, liburutegia ezagutzera ematera animatu nahi dituzte irakurleak. Hilaren 24an, Liburutegien Egunean, senideei edo lagunei liburutegia erakustera animatu nahi dituzte herritarrak, han eskaintzen denarekin gozatzea elkarrekin bizitzea baita, esan dute arduradunek.

Etxekoentzako aholkuak

Azkenik, astelehenetik aurrera, etxean ere irakurzaletasuna bultzatzeko gida bat banatuko dute. Batik bat, gurasoei zuzenduta egindako lana da, seme-alabak liburuen mundura hurbiltzeko. Helburua etxeko girotik hasita haurrak liburu, irakurketa eta liburutegira hurbiltzea da.

Kanpaina hau aurrera eraman ahal izateko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxe guztietara gutunak bidali dituzte liburutegitik.